


Marco Poloren mundu sinesgaitza



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Venezia, 1324ko urtarrilaren 8a. Marco Polo bidaiari eta merkatarri ezaguna hil zen, 70 urte inguru zituela. Hilzorian zela, inguruan bildutakoek *Munduaren deskribapena* liburuan kontatutakoak fikzioa zirela onartzeko eskatu omen zioten, baina hauek izan omen ziren bidaiariaren azken hitzak: “Ikusi nuenaren erdia ere ez nuen deskribatu, banekielako ez zidatela sinistuko”. Oraindik ere Marco Poloren liburuan jasotakoen sinesgarritasuna eztabaidagai da gaur egun.

Marco Polo ez zen izan Txinaraino iritsi zen lehen europarra, ezta bere familiako lehen kidea ere. Nicolo aita eta Maffeo osaba lehenago joan ziren Asiara eta Marco gaztea bigarren bidaian haiekin eramatea erabaki zuten. Baina Marco izan zen bidaia idatziz eta, gainera, modu erakargarrian jaso zuen bakarra, eta horrek ekarri zion ospea, halaberharrez.

Ekialdeko 26 urteko bidaia luzearen ondoren, 1295ean itzuli zen Italiara. Hurrengo urtean Venezia eta Genovaren arteko gerran parte hartu zuen. 1298an, Genovatarrek preso hartu zuten, Rustichello Pisakoa idazlearekin batera sartu zuten ziegan. Biek urtebete inguru eman zuten elkarrekin, eta Marcok kontatutakoari Rustichellok balio literarioa erantsi zion *Munduaren deskribapena* (edo *Munduko mirarien liburua*, edo *Milioia*, edo *Marco Poloren bidaien liburua*) osatzeko. Liburuak berehalako arrakasta izan zuen, baina, hain zuzen, kutsu literario horrek sinesgarritasuna kendu zion kontakizunari.



IL MILIONE

nari. Irakurleek fikzioa zela uste zuten.

Asian hurrengo urteetan gertatutakoak ere ez zuen lagundu. Kublai Kanen agintaldiaren ondoren, Mongoliar Inperioren gainbeherarekin batera, Asia eta Europaren arteko arrakala zabaldu zen, eta luzaroan ez zen europarririk hara joango Marco Polok deskribatutakoak egia ote ziren baieztatzeko.

Baina Marco Poloren sinesgarritasuna zalantzan jartzeko arrazoi nagusia garai hartako –eta hurrengo zazpi mendeetako– mentalitate eurozentrista izan zen. Bidaiari veneziarrak Venezia baino hamar aldiz handiagoak ziren hiriak deskribatu zituen, luxu harrigarritz beteriko

gorteak, ingeniariak obra ikaragarriak, bolbora, esku-dirua... Ezinezkoa zen zibilizatu gabeko herri haiek europarrak baino aurreratuagoak egotea.

Rustichellok idatzitako jatorrizko bertsioa galdu egin da, eta soilik hamarkada aldiz idatzitako moldaketak, transkripzioak eta itzulpenak iritsi zaizkigu. Ikerlariak liburuan jasotako hainbat datu gezurtatzeko gai izan dira, eta beste datu asko oraingoz ezin izan dira frogatu. Baina badira garbi baieztatu diren beste datu asko ere, Marco Polok berak duela 700 urte aurreratu bezala, Mendebaldeko nagusikeriak sinesten uzten ez dizkigunak. ●



NIYSIFA

New Yorketik etxera

Kanbodiako Gobernuak urteak daramatza 1970eko hamarkadan, gerra zibilean eta Pol Poten diktaduraren hasieran herrialdeari espoliatutako ondarea itzultzeko eskatzen. Eta New Yorkeko Hegoaldeko Distrituko Fiskaltza Federala Metropolitan museoan dauden 16 piezaren inguruko ikerketa egiten aritu da. Berriki baieztatu

dute pieza horiek Douglas Latchford arte trafikatuzailearen bidez iritsi zirela museora eta, ondorioz, piezak jatorrira itzuliko dituzte –14 Kanbodiara eta beste biak Tailandiara–. Berri ona izan arren, halakoak titulartan geratzen dira maiz, itzulitako pieza kopuru txikiak eta prozesu mantsoak ia ez baitio eragiten espolioazioaren arazoari. ●